




Izenburua: **Zebrak eta bideak**

Egilea: **Nerea Loiola**

Bilduma: **Narratiba, 155**

ISBN: **978-84-9109-940-6**

Salneurria: **19,00 €**

Egun on guztioi, eta eskerrik asko hona gerturatu izanagatik.

Hasteko, eskerrak eman nahi dizkizuet liburu hau posible egin duzuen guztioi. Uxue, Imanol, Harkaitz, Anjel, Inazio... Konbertsazio, iritzi, kritika, zuzenketa, bultzadatxo eta pizgarri horiek gabe ez nintzatekeen hemen izango gaur.

Eta eskerrak eman nahi dizkiot, Erein argitaletxeari, beste behin ere nigan jarritako konfiantzarengatik eta proiektu hau hain ongi zaintzeagatik.

Irakurleak liburuarekin duen lehen kontaktua bisuala izaten da, liburuaren azala ikusten dugu denok lehendabizi. Eta ni ere hortik hasiko naiz, azaletik, uste dudalako aipamen berezia merezi duela. Jon Aranguren egin du hau ere. Eta diot "hau ere", Epizentroa, nire aurreko narrazio-liburuko azala berak egin zuelako.

Ezagutu nuenetik miresten dut Jon Arangurenen estiloa, transmititzen didana beti halako soiltasun emankor bat. Eta argitaletxeak galdegin zidanean liburu honetako azala nork egitea nahi nuen, ez nuen zalantzarik egin.

Hasieran batean azalak irudikatzen duenaren, edo irudikatu nahi duenaren, edo irudikatu dezakeenaren azalpentxo bat prestatu nuen, baina segituan ohartu nintzen nire hitzak jarritz kaltetu, mugatu, eta txikitu egiten nuela artelan hau eta, beraz, erakutsi baino ez dut egingo, bakoitzaren gogamenean aske hegan egin dezan.

Beno, Zebrak eta Bideak. Esan behar dut, izenburu posible bezala agertu zitzaidanean, gertuko zenbait laguni eskatu niola iritzia eta batek baino gehiagok komentario berbera egin zidala: Gustatzen zait, oso Anari da.

Zebrak eta bideak, liburuko azken narrazioaren izenburua da. Bertan zebrak azaltzen dira, azaltzen dira zebrabideak eta azaltzen dira bidegurutzeak. Baina ipuin horren izenburua erabaki nuenean, eta zekarren sinbologiaz ohartu nintzenean, ulertu nuen, ematen ziola halako osotasun bat ipuin bildumari.

Uxuek esan duen moduan sei ipuinez osatua dago liburua. Ipuinak autonomoak dira, ez dago ipuin guztiak lotzen dituen hari narratiborik.

2021eko udazkenean hasi nintzen liburu honetako lehen ipuinak idazten eta aukera izan dut idazketa prozesuan istorio bakoitzari bere espazioa eskaintzeko, libre uzteko, izan nahi edo izan behar duenari askatasunez izaten uzteko. Eta uste dut hori nabaritu egiten dela, ipuinak elkarren artean oso desberdinak baitira.

Baina narrazioak independenteak izan arren, amaieran, proiektuaren osotasuna aztertu genuenean, ikusi zen badaudela, amankomunak diren elementuak: alde batetik, protagonista guztiak emakumezkoak dira, adin eta ezaugarri desberdinetakoak, eta bestalde, gai batzuk maiz azaltzen dira: maitasuna, desioa, sexua, emakume gorputza, gizarteak ezarritako genero espektatibak, amatasuna, beldurra, antsietatea, nahiak/ardurak/ezinak.

Baina, bereziki, esango nuke giza harremanetan ezarritako ardatzak eta sortutako atmosfera narratiboek ematen diola osotasuna liburuari. Arreta handia jartzen saiatu naiz harremanetan, detaileetan, keinu eta ekintza txikietan. Nahi izan dut unibertsala den horretara iritsi, xehetasunetik abiatuta; lortu ote dudan, irakurleok esango didazue.

Izenburuak iradoki dezakeen sinbologiara itzuliz, ipuin hauetako pertsonaiek aurrera egin beharko dute bizitzak eta gizarteak ezarritako bidegurutzetan; ezezagunera urratsak eman beharko dituzte. Geldirik egotea ez da aukera bat. Bestalde, zenbait ipuinetan animalia bat edo batzuk erabili ditut pertsonaien ispilu lanak egingo dituztenak, eta sortuko da halako itzal-errebelazio binomio bat geure barneko lokatz zokoratuak nahastera etorri dena.

Ipuinok idazterakoan ahots eta egitura desberdinak probatzen ibili naiz, begirada ezohiko lekuetan jartzen. Orain arte egin gabekoak egin nahi izan ditut. Uste dut beti idazten dudala hortik, niretzat hor hartzen duela zentzua idazteak, zailtasunean, erronkan, gai izango al naiz hau egiteko?

Ondorioz, liburu honetan aurkituko dituzue ipuin laburrak, kasik sentrazio edo une bat harrapatzen dutenak; eta aurkitu dituzue arnas luzeko ipuinak, nobelaren pultsura gerturatzen direnak. Aurkituko dituzue protagonisten ahotsetik kontatutako istorioak eta baita kanpo narratzaile batek kontatutakoak. Egitura klasikoari jarraituko diote narrazio batzuk eta esperimentaziotik gehiago edan dute beste batzuk.

Mami aldetik ere istorio oso desberdinak atera zaizkit. TERRAZA ipuinean egongo da gazte bat, ezezkorik esan ezin diona bere etxeko terrazan Ikeako iragarki bat grabatzeari. INOIZKO IPUINIK ONENAK emakume idazle bat du protagonista, haur jaioberria gauez esnatzearen beharrak obsesionaturik, edozer egiteko prest dagoena idazten ari den ipuina amaitzeko. ARDI GALDUAK ipuinean ezagutuko dugu iraganeko gertakari tragiko bat, ustez desiratutako bizitzaren zimenduak astintzera etorri dena. ZEBRAK ETA BIDEAK narrazioak, preadoleszente baten ibilerak kontatuko dizkigu, zeina noraezean dabilen askatasunaren konplexutasunak kolpatuta. EGIA ESAN, EZ DAKIT ipuineko emakumea ekilibrioak egiten dabil bere baitatik ihes egitera, gertatu beharrekoari gertatzen uztera bultzatzen duen pulsio basa batekin. Eta BIRENTZAKO OHEA ipuinean ezagutuko dugu ama-emazte eredugarri bat, hoteleko ohe handiegiaren izara artean katramilatu dituen desirak, beldurrak eta marra gorriak.

Esan daiteke ipuin guztiek jolasten dutela moduren batean iragana/oraina kontrastearekin, baina sei ipuinetatik bost hemen eta orain kokatuta daude. Aipagarria iruditzen zait ZEBRAK ETA BIDEAK ipuinaren kasua, besteengandik bereizten delako, eta niretzat ariketa oso zaila izan delako gai honi buruz idaztera ausartzea. Zebrak eta bideak narrazioa 2000. urtean dago kokatuta, Euskal Herrian. Eta ipuina garai hartako nerabe baten bizitzari buruzkoa bada ere; ezinbestean da Euskal Gatazkari buruzkoa.

Ipuin bakoitzak bere hari narratiboa, bere trama izan arren, ausartuko naiz esatera geruza asko dituzten istorioak direla. Saiatu naiz beti hizkuntza soil, gordin eta neurtua erabiltzen, makillajerik gabea; denbora asko inbertitu dut une bakoitzean beharrezkoa zen hitza zehaztasunez bilatzen. Ipuinak idazterakoan oso baliagarria zait eta asko erabili dut elipsia eta iruditzen zait horrek irekitasuna ematen diola testuari eta askatasuna irakurleari.

Bukatzeko, aipatu, ipuinetako giro eta tonuek ilunak eta dramatikoak iduri dezaketela hasiera batean, baina horiek orekatuko dituen umorea ere erabiltzen saiatu naiz ipuin batzuetan; garraztasunetik, ironiatik, umore beltzetik...

Eta bueno, denbora luzean nire nirea izan dena, orain zuena ere bada. Pozik nengoke idazten gozatu dudanaren laurdena disfrutatuko balu irakurleak liburu hau zabaltzen duenean.

Eskerrik asko.

Nerea Loiola Pikaza
Donostia, 2024ko azaroak 5

Nerea Loiola Pikaza (Deba, 1985). Ingeniaritza Mekanikoan graduatua da, eta idazlea eta literatura-bitartekaria lanbidez.

Helduen narratibaz gainera, artikulugintza, gidoigintza, komikia eta haur eta gazte literatura landu ditu. Bereak dira, besteak beste, *Harri bat poltsikoan* (2018) eta *Naian* (2022) haurrentzako ipuinak, gazteei zuzendutako *Eskapu Liburuak* bilduma [7G *udalekuak* (2022), *Azken denbora* (2023) eta *AHT* (2024)] eta *Epizentroa* (2021) eta *Zebrak eta bideak* (2024, RGG bekaren irabazlea) narrazio liburuak.

- <https://nerealoiola.com>